BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

4727

AGINDUA, 2017ko irailaren 12koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez ebazten baita Irungo (Gipuzkoa) CPEIPS Irungo La Salle HLBHIP ikastetxe pribatuaren 2017-2018 eta 2021-2022 bitarteko ikasturteen plangintza banatzea eta 2017-2018 ikasturtea ituntzea.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko irailaren 28ko Aginduaren bidez, honako hauek ebatzi ziren: 2016-2017 eta 2021-2022 bitarteko ikasturteetarako hezkuntza-itunak berritzea eta berriak izenpetzea, eta 2016-2017 ikasturtean itundu beharreko unitateak zehaztea. honako irakaskuntza hauetan: Haur Hezkuntzako 2. zikloa, Lehen Hezkuntza, DBH, Hezkuntza Berezia (talde egonkorrak eta zereginen ikaskuntza), Batxilergoa, Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailako Heziketa Zikloak eta Goi Mailako Heziketa Zikloak.

Hezkuntzako sailburuaren 2017ko uztailaren 27ko Aginduaren bidez, ebazten da zer unitate itundu behar diren 2017-2018 ikasturtean, honako irakaskuntza hauetan: Haur Hezkuntzako 2. zikloa, Lehen Hezkuntza, DBH, Hezkuntza Berezia (talde egonkorrak eta zereginen ikaskuntza), Batxilergoa, Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailako Heziketa Zikloak eta Goi Mailako Heziketa Zikloak.

Hezkuntzako sailburuaren 2017ko ekainaren 12ko Aginduaren bidez, baimena ematen da Irungo (Gipuzkoa) «Irungo La Salle» Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatua banatzeko, 2017-2018 ikasturtetik aurrera. Banatze horren ondorioz, batetik, «Irungo La Salle» Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatua sortzen da, Lanbide Heziketa irakasteko baimena izango duena, eta, bestetik, «Irungo La Salle» Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatua, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako, Hezkuntza Berezi Irekiko eta Batxilergoko irakaskuntzak emateko baimena izango duena.

Hori guztia aintzat hartuta, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Onartzea plangintza banatzea, 2017-2018 eta 2021-2022 bitarteko ikasturteetan, agindu honen I. eranskinetan zehazten den moduan.

2. artikulua.– Onartzea 2017-2018 ikasturtearen ituna banatzea, agindu honen II. eranskinetan zehazten den moduan.

3. artikulua.– Agindu honek 2017-2018 ikasturtetik aurrera izango ditu ondorioak.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka, interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete, EAEko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko irailaren 12a.

Hezkuntzako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

I. ERANSKINA

GIPUZKOA Herria	Ikastetxea	Maila	Moduluaren izena	Taldeak 2017-2018	2018-2019	2019-2020	2020-2021	2021-2022
Irun	CPES Irungo La Salle BHIP	Erdi Mailako LH	1. Instalazio elektriko eta automatikoak, egunekoa	1	1	1	1	1
			2. Instalazio elektriko eta automatikoak, egunekoa	1	1	1	1	1
			1. Mekanizazioa, egunekoa	1	1	1	1	1
			2. Mekanizazioa, egunekoa	1	1	1	1	1
		Goi Mailako LH	1. Administrazioa eta finantzak, egunekoa	1	1	1	1	1
			2. Administrazioa eta finantzak, egunekoa	1	1	1	1	1
			1. Automatizazioa eta robotika industriala, egunekoa	1	1	1	1	1
			2. Automatizazioa eta robotika industriala, egunekoa	1	1	1	1	1
			1. Fabrikazio mekanikoko produkzioko programazioa, egunekoa	1	1	1	1	1
			2. Fabrikazio mekanikoko produkzioko programazioa, egunekoa	1	1	1	1	1

I. ERANSKINA

GIPUZKOA

Herria	Ikastetxea	Maila	Moduluaren izena	Taldeak				
				2017-2018	2018-2019	2019-2020	2020-2021	2021-2022
Irun	CPEIPS Irungo La Salle HLBHIP	Haur Hezkuntza	Haur Hezkuntza	6	6	6	6	6
		Lehen Hezkuntza	Lehen Hezkuntza	12	12	12	12	12
		DBH I	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza I	6	6	6	6	6
		DBH II	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza II	6	6	6	6	6
		Batxilergoa	Batxilergoa	8	8	8	8	8

II. ERANSKINA

GIPUZKOA Herria	Ikastetxea	Maila	Moduluaren izena	Finantzaketa	Taldeak	Eredua	Zenbatekoa
Irun	CPES Irungo La Salle BHIP	Erdi Mailako LH	1. Instalazio elektriko eta automatikoak, egunekoa	Partziala	1	A	93.682,13
			2. Instalazio elektriko eta automatikoak, egunekoa	Partziala	1	A	69.143,00
			1. Mekanizazioa, egunekoa	Partziala	1	A	100.396,27
			2. Mekanizazioa, egunekoa	Partziala	1	A	77.387,62
		Goi Mailako LH	1. Administrazioa eta finantzak, egunekoa	Partziala	1	B	86.550,24
			2. Administrazioa eta finantzak, egunekoa	Partziala	1	A	68.414,95
			1. Automatizazioa eta robotika industriala, egunekoa	Partziala	1	B	93.597,52
			2. Automatizazioa eta robotika industriala, egunekoa	Partziala	1	A	70.434,09
			1. Fabrikazio mekanikoko produkzioko programazioa, egunekoa	Partziala	1	B	96.896,23
			2. Fabrikazio mekanikoko produkzioko programazioa, egunekoa	Partziala	1	A	76.571,90

II. ERANSKINA

GIPUZKOA

Herria	Ikastetxea	Maila	Moduluaren izena	Finantzaketa	Taldeak	Eredua	Zenbatekoa
Irun	CPEIPS Irungo La Salle HLBHIP	Haur Hezkuntza	Haur Hezkuntza	Osoa	6	D	388.451,64
		Lehen Hezkuntza	Lehen Hezkuntza	Osoa	2	B	135.620,44
			Lehen Hezkuntza	Osoa	10	D	678.102,20
		DBH I	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza I	Osoa	3	B	261.177,78
			Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza I	Osoa	3	D	261.177,78
		DBH II	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza II	Osoa	4	B	422.381,92
			Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza II	Osoa	2	D	211.190,96
		Batxilergoa	Batxilergoa	Osoa	2	A	213.495,28
			Batxilergoa	Osoa	2	B	213.495,28
			Batxilergoa	Osoa	4	D	426.990,56